


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,3 igo ziren 2006ko maiatzean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko maiatzetik 2006ko maiatzera) eraikuntzaren kostuak %4,3 igo dira.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,3ko igoera izan zuen 2006ko maiatzean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %4,3raino igo zen. Aurreko urteko abenduaren aldean, %4,2 igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2006



(*)Gehikuntza maiatzakoko urte artekoa da
Fuente: EUSTAT

2006ko maiatzean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,5eko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten; bai eraikuntzak bai obra zibilerako lehengaien kostuek %0,5eko gehikuntza izan zuten aurreko hilabetearen aldean. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran argi ikusten da antzeko ibilbideak izan dituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %3,8 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %4,0.

Maiatzean, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, metalezko tutuerietan (%4,1), lehergailu eta gasetan (%2,9), energia elektrikoan (%2,5) eta burdina eta altzairuan (%2,1) kontsumitutako lehengaletan eman ziren. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: asfaltozko produktuak (%-2,5), petrolioaren eratorriak (%-1,8), karea, igeltsua eta eskaiola (%-1,6) eta zur eta kortxoa (%-0,2).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: petrolioaren eratorriak (%23,2), asfaltozko produktuak (%21,0), energia elektrikoa (%15,3), lehergailu eta gasak (%9,9), burdina eta altzairua (%7,9) eta beira (%7,7). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2005eko maiatzetik 2006ko maiatzera) murriztu egin dira: karea, igeltsua eta eskaiola (%-3,4), metalezko tutueriak (%-1,0) eta zeramika-produktuak (%-0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2006KO MAIATZA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	124,3	0,3	4,3	4,2	
ERAIKINAK	124,2	0,3	4,2	4,2	
OBRA ZIBILA	124,8	0,3	4,5	4,2	
LEHENGAIEN KOSTUA	120,7	0,5	3,8	3,7	
ERAIKINAK	120,8	0,5	3,8	3,7	
OBRA ZIBILA	120,4	0,5	4,0	3,5	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	132,8	0,0	5,3	5,3	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>